

**ERASO SEXISTEN KONTRAKO SAKANAKO FESTETAKO KANPAINA
BATERATUAREN AURKEZPENA**

Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun-zerbitzuak.

Ekainak 20. PRENTSAURREKOA

Bertaratu direnak:

- Javier Ollo Martínez (Altsasuko alkatea)
- Oihana Olaberria Jaka (Arakilgo alkatea)
- Maria Saez de Albeniz Bregaña (Etxarri Aranazko alkatea)
- Oihana Uribetxeberria Garmendia (Lakuntzako alkatea)
- Aitor Larraza Carrera (Irurtzungo zinegotzia)
- Oihana Gallo San Roman (Sakanako Mankomunitateko Berdintasun teknikaria)
- Aizaga Zeberio Petriati (Altsasuko Udaleko Berdintasun-teknikaria)

**ERASO SEXISTEN KONTRAKO SAKANAKO FESTETAKO KANPAINA
BATERATUA**

Uda iristearekin batera, herrietako festen denboraldia ere heldu da, eta Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun-zerbitzuek eraso sexisten kontrako kanpaina bateratua egingen dugu.

Aurtengo kanpainarendako aukeratutako lemak hauek dira:

-“Jarain! Eraso sexistarik gabe Sakana libre!” Honela, Sakanako ia herri guztietako festetan indarkeriaren kontrako irudi bateratua jendarteratuko da.

-Altsasuren kasuan, lema **“Zure ardura da /Depende de ti”** izanen da.

Bi lemak elkar osagarritzen dira, eta kanpaina honek dituen bi helburu nagusi hauei erantzuten diete:

-Alde batetik, festa-egun eta -eremuetan emakumeenganako erasoen aurka herritarrak sentsibilizatzea.

-Eta bestetik, errealitate honen aurrean, instituzio zein jendarte osoaren ardura eta konpromiso irmoa adieraztea.

Sakanako kanpaina bateratu honek elementu eta osagai ezberdinak edukiko ditu:

1.- Kartelak. Sakanako herri guztietako kaleetan aipatutako lemekin kartelak jarriko ditugu.

2.- Bideoa. Sakanako herri guztietako ordezkari politiko nahiz herritarrekin sentsibilizaziorako 3 bideo grabatu ditugu.

Lehenengo bideoa ekainaren 23an jarriko dugu ikusgai. (Uharte Arakil, Arbizu, Arruazu, Urdiain, Arakil).

Bigarrena uztailaren erdialdean (Iturmendi, Bakaiku, Olazti, Irurtzun eta Etxarri Aranatz eta Ergoiena). Eta azkena abuztu bukaeran jarriko dugu ikusgai. (Altsasu, Ziordi, Lakuntza, Arakil eta Irañeta). Bideo honetan parte hartu duten 60dik gora sakandarrei eskerrak eman nahi dizkiogu hemendik.

3.- Informazio-guneak. Jaietan zehar, indarkeria sexistaren prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzeko informazio-guneak jarriko ditugu Sakanako herri guztietan. Helburu nagusia erasoen gaineko informazioa ematea eta horiei aurre egiteko tresnak eskaintzea da.

Emagin Elkarteko formatzaileak izango dira hainbat orduz bertaratuei argibideak ematen.

Hona hemen herri bakoitzeko informazio-guneei buruzko datuak:

EKAINA

Ekainak 24, larunbata UHARTE ARAKIL 12:00-15:00

Ekainak 26, astelehena ARBIZU 19:30-22:30

Ekainak 30, ostirala ARRUAZU

UZTAILA

Uztailak 5, asteazkena URDIAIN: 19:30-22:30

Uztailak 14 ostirala ITURMENDI 19:30-22:30

Uztailak 20, osteguna IRURTZUN: 19:30-22:30

Uztailak 24, astelehena BAKAIKU 20:00-23:00

Uztailak 28, ostirala OLAZTI 19:30-22:30

Uztailak 29, larunbata ETXARRI ARANATZ 20:00-23:00

ABUZTUA

Abuztuak 26, larunbata LAKUNTZA 20:00-23:00

Abuztuak 28- IRAÑETA

IRAILA

Irailak 9, larunbata ZIORDIA 20:00-23:00

Irailak 8,ostirala ARAKIL

Irailak 15, ostirala, ALTSASU 19:30-24:00

4.- Pankartak. Udaletxetan zein bestelako eraikin publikoetan, ohi bezala, kanpainaren irudiarekin pankartak jarriko ditugu.

5.- Taberna eta txosna-guneak. Eraso sexistei aurre egiteko jarraibideak ikusgai jarriko ditugu txosna eta tabernetan, herritar orok jakin dezan nola jokatu erasoan aurrean. Tabernari nahiz txosnetako langileen kasuan, eurentzako irizpide espezifikoak landu ditugu, eta indarkeria sexistari buruzko formazio-saio bat egingen dugu uztailaren 12an. Tabernetako langile nahiz txosna-guneetako parte-hartzaileak saio horretan parte hartzera gonbidatzen ditugu. Saio hauek Sakanako bi berdintasun teknikariek eta Emagin elkarteko kideek bideratuko dituzte.

6- Sakanako herrietako festa eta festa guneetan eraso sexisten prebentzioa eta arreta protokoloa.

Sakanako zenbait herrik aurretik Protokoloak landuta bazituzten ere, arten Sakana mailan Protokolo bateratua landu da. Landu den protokolo honen helburu orokorra honakoa da: Sakanako herrietako festetan gertatzen diren eraso sexisten aurren, jarduketa bateratu eta koordinatua egituratzea, Mankomunitateak eta Udalek ematen duen erantzuna hobetze aldera.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Eraso sexistekin lotutako prebentzioari, sentsibilizazioari, arretari eta komunikazioari dagozkien prozedurak sistematizatzea eta adostea.
- Festa-guneetan eraso sexistei aurrea hartzea, ekiteko tresna eta estrategien bitartez.
- Herritar guztiei jakinaraztea emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko erantzukizuna.

Protokolo honen baitan kudeaketarako bi gune sortuko dira: Alde batetik, festetako eraso sexistak prebenitzeko mahai iraunkorra eta, bestetik, eraso sexisten aurrean erantzuteko mahaiak.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan zehar Berdintasun batzordeetan parte hartu duten norbanako eta ordezkari politikoei.

Honenbestez, udal-ordezkari eta herritar guztiei dei egiten diegu emakumeen kontrako erasoen aurrean arduraz jokatzera.

Lakuntzan, 2023ko ekainaren 20an.